Ondare Kulturala Wikipediara lotzen: Entitateen desanbiguazioaren ekarpenak

Karrera Bukaerako Proiektua

2012.eko uztailaren 10

Ander Barrena Madinabeitia

Gainbegiraleak:
Eneko Agirre - Aitor Soroa

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

Gaien Aurkibidea

Irudien Zerrenda

Taulen Zerrenda

1 Kapitulua

Sarrera

Ondare kulturala, kultura baten adierazpenen multzoa da. Hau da, kultura hau existitu denaren aztarna edo herentzia. Ondarea, elementu ukigarri (eraikuntza, eskultura, liburuak eta abar) eta ukiezinez (tradizioa, folklorea) osatua dago. Proiektu honetan, ondare ukigarrian zentratuko gara, argazki, pintura eta idatzizko laginetan batez ere. Gaur egun, ondare kultural hau bildu eta digitalizatzen diharduten hainbat erakunde aurki daitezke, horietako bat Europeana da.

Europeana[1] Europear batasuneko kide diren 27 estatuen instituzio kulturalen kontribuzio digitalen liburutegia da. Euskarri digitalean dauden milioika elementuz osatua dago eta hau da hain zuzen Europeanaren ezaugarri garrantzitsuenetariko bat.

Hala ere, erabiltzaile arruntaren ikuspuntutik, elementu askok informazio falta handia dute. Hauen deskribapenak motzak dira eta ez dute informazio gehigarririk eskaintzen. Adibidez, Europeanan "Mona Lisa" artelan famatua bilatuz, honi dagokion Europeana elementuaren[2] (ikus 1.1 irudia) deskribapena oso urria dela ikus daiteke. Gainera "Aufbewahrung/Standort: Musée National du Louvre (Paris)"deskribapenak ez dio elementuari erreferentzia egiten, erakusgai dagoen museoari baizik.

Baina ondare kulturaleko elementuei buruzko Wikipediako artikuluek, informazio asko eta erlazionatutako elementuetara estekak eskaintzen dituzte. Aurreko adibidearekin jarraituz "Mona Lisa"-ri buruzko Wikipedia artikuluak[3] (ikus 1.2 irudia) deskribapen aberats eta zehatza eskaintzen du. Gainera egilearen informazioa, artelanaren inguruko historia eta erlazionaturiko

[1] http://www.europeana.eu

[2] http://www.europeana.eu/portal/record/08501/F29E726C1E32B3B49D5166E1B7F5434AFA6404B7.html?start=12&query=mona+lisa

[3] http://en.wikipedia.org/wiki/Mona_Lisa

Irudia 1.1: Europeanako "Mona Lisa" artelanaren elementua. Deskribapenak ez du artelanari buruz ezer esaten eta ez du informazio gehigarririk eskaintzen.

artikulu zerrendak eskaintzen ditu.

Ondare kulturaleko elementuen informazioa aberastea ez da gauza berria, [1] artikuluan, LEMMO tresna eskaintzen dute Europeanako elementuak kanpoko informazioaz eskuz aberasteko. Karrera bukaerako proiektu honetan, aurrekoak artikuluak ez bezala, sistema automatiko bidezko aberasketaren ikerketa eta ebaluazioa egingo da. Lehenik ausaz aukeraturiko elementuen lagin bat eskuz etiketatu da dagokion Wikipedia artikuluarekin eta ondoren sistema automatikoen emaitzak ebaluatu dira lagin honen aurka. Etiketatzeko irizpide batzuk finkatu dira ikerketa honetan: elementuaren instantzia definitzen duen artikulua aurkitu nahi izan da eta ez erlazionatutako artikulua. Artikuluak, ondare kulturaleko elementuak deskribatzen duena deskribatu behar du.

Ondare kulturaleko elementu bati Wikipedia artikulu bat esleitzeko orduan, posibleak diren artikuluen artean aukera egokia egitean dago gakoa. Beraz bi pausu jarraitu behar dira: Lehenik hautagai zerrenda bat sortu eta bigarrenik hauek desanbiguatu behar dira artikulu bakarrarekin geratuz.



Irudia 1.2: Wikipediako "Mona Lisa"-ren artikulua. Deskribapen luze eta aberatsa eskaintzan du, egile eta modeloaren informazio gehigarria, erlazioa duten elementuetara estekak eta abar.

Ataza hau entitate-izenen desanbiguazioa izenaz ezagutzen da.

Adibide berdinarekin jarraituz, "Mona Lisa"-ren Europeana elementuari dagokion artikulua itzultzeko prozesua jarraian datorrena da. Lehenik Wikipediak 13 artikulu[4] eskaintzen ditu "Mona Lisa" izenarekin erreferentzia daitezkeenak. Aukeren artean, abesti, opera, aktoresa edo kantari bat aurki daitezke. Bigarrenik hautagai hauen artean desanbiguazio algoritmo batek artelana[5] aukeratu beharko luke. Alor honen inguruan lan asko egina dago (ikus [2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9] artikuluak) baina oraindik ere arazo ireki bat da.

[4] http://en.wikipedia.org/wiki/Mona_Lisa_(disambiguation)
[5] http://en.wikipedia.org/wiki/Mona_Lisa

2 Kapitulua

Proiektuaren Helburuak

Proiektu honek bi helburu nagusi ditu:

1. Europeanako elementuak, sistema automatiko bidez, Wikipedia artikuluekin aberastea posible den ikertzea eta ebaluatzea. Ausaz aukeraturiko elementuen lagin etiketatua, aurrerantzean urre-patroia deituko dena, elementuen etiketatu egokia izango da. Ataza honetan, sistemek elementu bakoitzarentzat proposaturiko artikuluak urre-patroiaren aurka ebaluatuko dira.

2. Europeanako elementuak Wikipedia artikuluekin aberasteko sistema bat garatzea eta ebaluatzea. Sistema garatu ondoren urre-patroiaren aurka ebaluatuko da.

Bi helburu nagusi hauez gain, urre-patroia bera ebaluatu da eskuz eginiko beste etiketatu baten aurka. Batez ere, etiketatu garaian suertatu diren arazo eta zalantzak argitzeko asmoz.

3 Kapitulua

Aurrekarien azterketa

Lehenik eta behin, proiektu hau aurrera eramateko beharrezkoak diren aurrekariak aztertuko dira. Hasteko entitateak eta ezagutza baseak azalduko dira. Jarraian Wikipediak proiektu honetan duen garrantziaz hitz egingo da. Gainera Europeana eta hau inguratzen duten proiektu Europarren azalpen bat egingo da Ondare Kulturalaren arloan kokatzeko. Ondoren Europeanako elementuak artikuluekin lotzeko Wikipedia Miner sistema automatikoa azalduko da. Honen ostean, Europeanako elementuak Wikipedia artikuluekin aberasteko sistema garatzeko erabili diren aurrekariak aztertuko dira.

3.1 Entitateak ezagutza basearekin lotzen

Wikipedia artikuluei buruz hitz egiten denean, entitateei erreferentzia egiten zaie aldi berean. Entitateak, ontologia, semantika edo logika sistema batek existitzen direla froga dezaketen edozer gauza dira. Entitate hauek, ezagutza base bateko parte izango dira eta beste entitateekin loturak izango dituzte (ikus 3.1 irudia). Irudiko testuan entitateei erreferentzia egiten dieten izenak identifikatu eta ezagutza baseko entitateekin lotzean, esaldiaren esanahia ulergarriagoa bihurtzen da. Ezagutza baseko informazioaz badakigu "Alex Uranga" eta "Jake Stone" bodyboarder-ak direla eta "Reunion Irla"-ko froga "IBA" txapelketako parte dela. Modu honetan esaldi hau "Bodyboard/kirola" testuinguruan sailka daiteke. Baina entitateak ezagutza basearekin lotzean bi arazo nagusirekin topo egin daiteke.

Demagun testuan "Alex Uranga" agertu beharrean, "Alex","Alex U." edo "Uranga" agertzen dela eta kasu hauetan ez litzateke hain erraza izango dagokion entitatearekin lotzea. Bestalde, "Reunion irla"-k bodyboard txapelketako frogari erreferentzia egiten dio kasu honetan, baina Frantziako departamentua den Irla ere izan daiteke entitate helburua.



Irudia 3.1: Bertan ikus daiteke, testu arrunt bateko entitateen erreferentziak identifikatu eta ezagutza basearekin nola lotzen diren.

Proiektuaren testuinguruan arazo nagusia bigarrena izango da, izen berdinarekin entitate ezberdinak erreferentzia daitezkeela. Wikipediarentzat adibidez "La Gioconda" izenak erreferentzia ditzakeen entitate ezberdinak 3.2 irudian agertzen direnak dira. Izen berdinarekin artelana, modeloa, opera eta liburua erreferentzia daitezke. Aukeren artean, dagokion kasurako entitate egokia aukeratzeko atazari, entitate-izenen desanbiguazioa deritzo.

3.2 Wikipedia

Proiektu honetako entitateen ezagutza basea Wikipediako entitateek osatzen dute. Entitate eta Wikipedia artikuluen arteko lotura zuzena da: Wikipedian, "http://en.wikipedia.org/wiki/Mona_Lisa" artikulua bada, entitatea "Mona_Lisa" izango da.

Wikipedia[1], Wikimedia Fundation[2]-en entziklopedia eleanitza eta eduki askekoa da. Bertako artikuluak mundu osoko erabiltzaileek idazten dituzte eta bakoitzaren identifikadore unibokoa titulua da. Honen bitartez artikuluaren kontzeptua deskribatzen da eta kontzeptuen aldaerak edo formak, 3.2.2 ataleko birbideratze eta 3.2.1 ataleko desanbiguazio orrien bitartez lotzen dira artikulu nagusira.

[1] http://www.wikipedia.org
[2] http://en.wikipedia.org/wiki/Wikimedia_Foundation

Irudia 3.2: "La Gioconda" izenak Wikipedian erreferentzia ditzakeen entitate posibleak.

Artikuluen barnean beste artikuluetara doazen estekak, 3.2.3 ataleko aingura bitartez egiten dira eta artikuluan izen batez identifikatzen dira. Aingura izenak, sarrerak ez bezala errepikatuak egon daitezke artikulu ezberdinetan. Ezaugarri hauek, entitate-izenenkin lan egiteko informazio-iturri gisa oso interesgarriak dira. Gainera entitate-izenen desanbiguaziorako baliabide ezin hobea da Wikipedia.

3.2.1 Desanbiguazio orriak

Wikipediako desanbiguazio orriek, bi adiera ezberdin edo gehiago dituzten kontzeptuen kasuan, adiera ezberdinen artean bereizteko loturak eskaintzen dituzte. Beraz orri hauek izen berdinaz erlazionatuak dauden artikuluen zerrendak eskaintzen dituzte.

3.3 irudian ikus daiteke "Michael Jordan" izenarentzat Wikipediako desanbiguazio orriak eskaintzen dituen artikuluen zerrenda. Saskibaloiko jokalariaz gain, unibertsitateko maisu, futbolari eta politikoaren artikuluetara

Irudia 3.3: Michael Jordan-en Wikipediako desanbiguazio orria.

loturak agertzen dira.

3.2.2 Birbideratzeak

Wikipediaren orrialde asko birbideratze bidez atzitzen dira, adibidez, "UK"[3] artikulua birbideratze artikulu bat da, hain zuzen, "United Kingdom"[4] artikulura. Kasu hauetan, "UK" birbideratze orriak "United Kingdom" orrialdea ebazten duela esaten da. Orri hauen bitartez, entitate berari izen ezberdinen bitartez deitzeko arazoari aurre egiten zaio eta pluralizatze edo erlazionatutako hitzen erabilerari irtenbidea ematen zaie.

3.2.3 Aingurak

Wikipediaren antolaketan, betebehar garrantzitsua daukate artikuluen arteko aingura testuek. Aingurak, Wikipedia artikuluetan agertzen diren hyperestekak dira. Aingura testuan agertzen diren hitzek, gehienetan, erreferentziatu duten artikuluari buruzko informazio esanguratsua eskaintzen dute eta ez dute zertan artikuluaren izen berdina eduki behar. 3.4 irudian ikus daiteke "Mona Lisa"[5]-ren artikuluan, hyper-esteka moduan dauden aingura ezberdinak: Italian, Leonardo da Vinci, Lisa Gherardini ...

Aingura testuetan agertzen diren hitzak aztertuz, "Lisa Gherardini"-k adibidez "Lisa del Giocondo"[6] artikulura erreferentzia egiten du. Propietate hau, oso garrantzitsua izango da proiektuko helburuetako bat betetzeko. Izan ere, Europeanako elementuak Wikipedia artikuluekin aberasteko sistema garatzeko orduan, garrantzia handia emango zaio propietate honi.

[3] http://en.wikipedia.org/wiki/UK
[4] http://en.wikipedia.org/wiki/United_Kingdom
[5] http://en.wikipedia.org/wiki/Mona_lisa
[6] http://en.wikipedia.org/wiki/Lisa_del_Giocondo



Irudia 3.4: Mona Lisaren Wikipedia artikulua eta aingura testuak.

3.3 Wikipediaren 2011-ko Maiatzak 25-eko iraulketa

Wikipediaren ezagutza web-orrialdetik kontsulta daiteke, baina gure ikerketarako erabilera erosoagoa izan dadin informazio guzti hau internetetik jaisteko aukera dago. Wikipediak, web orrian duen informazio guztia XML erraldoi batean eskuratzeko aukera ematen du iraulketa bitartez. Iraulketak, egin diren datarekin identifikatzen dira eta XML formatuan kudeatzen du Wikipedia osoko informazioa. Proiektu honetan erabili den iraulketa 2011ko Maiatzak 25-eko Ingelesezko bertsioa da. 3.5 irudian ikus daiteke XML erraldoi honen lagin bat, informazio hau erabiltzeko beharrezkoa da erauzi eta kudeatuko duen tresna bat, 3.4 ataleko Wikipedia Miner sistema hain zuzen.

3.4 Wikipedia Miner sistema

Wikipedia Miner[7] sistema, Wikipediak eskaintzen dituen ezagutza aberatsak kudeatzeko tresna bat da. Horretarako, aurreko atalean aipatu den iraulketa bat jasoz, informazio hau erauzi eta antolatzen du. Horretaz gain erauzketaren ondoren, informazio guzti hau erabili daiteke kontsultak egiteko. Wikipedia Minerrek, edozein kontsultarekin erlazionatuak dauden Wikipedia artikuluak bueltatzen ditu. Tresna honek, kontsultak linean[8] egiteko aukera mugatua dauka. 3.6 irudian ikus daiteke "Mona Lisa" kontsultarentzat

[7] http://wikipedia-miner.cms.waikato.ac.nz/index.html
[8] http://wikipedia-miner.cms.waikato.ac.nz/demos/search/

```
 </page>
  <page>
    <title>List of Atlas Shrugged characters</title>
    <id>359</id>
    <revision>
      <id>425867426</id>
      <timestamp>2011-04-25T18:41:39Z</timestamp>
      <contributor>
        <username>EricCable</username>
        <id>7125848</id>
      </contributor>
      <minor />
      <comment>/* Dagny Taggart */</comment>
      <text xml:space="preserve">This is a list of characters in [[Ayn
Rand]]'s novel ''[[Atlas Shrugged]].''

==Major characters==
The following are major characters from the novel.&lt;ref&gt;Characters
are listed as &quot;major&quot; if they meet one of the following
criteria:
*they are listed as &quot;major&quot; characters in a widely available
study guide, such as [[CliffsNotes]], [[SparkNotes]], or [[Gale
(Cengage)|Gale's]] ''Novels for Students'';
*they are listed as &quot;primary heroic&quot; or &quot;arch-
villain&quot; characters in Gladstein's ''The New Ayn Rand Companion'';
*they are the focus of an essay in a scholarly book about the novel,
such as ''Essays on Ayn Rand's Atlas Shrugged'' or ''Ayn Rand's Atlas
Shrugged''.&lt;/ref&gt;

===Dagny Taggart===
[[Image:Taylor-Schilling-as-Dagny-Taggart.jpg|thumb|upright=0.56|right|
[[Taylor Schilling]] as Dagny Taggart in the 2011 film.]]
Dagny Taggart is the [[protagonist]] of the novel. She is Vice-
President in Charge of Operations for Taggart Transcontinental, under
her brother, James Taggart. However, due to James' incompetence, it is
Dagny who is responsible for all the workings of the railroad.
......
```

Irudia 3.5: 2011-ko Maiatzak 25-eko Ingelesezko Wikipedia iraulketaren lagina. Bertan "List of Atlas Shrugged characters" artikuluaren informazioa agertzen da. Informazio hau modu eroso batean erabili ahal izateko beharrezkoa da informazio hau erauzi eta kudeatuko duen sistema bat erabiltzea.

itzultzen dituen Wikipedia artikuluak. Bertan ikus daiteke emaitzak desanbiguatuak daudela goitik behera ordenatuak.

Desanbiguazioa [5] artikuluan jasotako metodoaz egiten du eta itzultzen duen artikulu bakoitzari pisu bat esleitzen dio artikuluen artean sailkapen bat eginez. Wikipedia iraulketa eta Wikipedia Miner erausleaz lokalean lan egitea ezinezkoa izan daiteke informazio eta lan karga altuak direla eta. Beraz, lan guztia zerbitzarietan egin da. Hurrengo azpi atalean, erausleak iraulketa nola kudeatu duen azalduko da Wikipedia Miner-en azpiegitura ulertzeko.

Irudia 3.6: Wikipedia Miner-ek linean egindako, "Mona Lisa" kontsultaren emaitzak. Ikus daiteke emaitzak desanbiguatuak itzultzen dituela.

3.4.1 Wikipedia Miner-en azpiegitura

Lehen esan bezala erausleak Wikipediako iraulketa (ikus 3.5 irudia) jasotzen du. XML formatuan dagoen fitxategi erraldoi honetatik informazio guztia jaso eta elkarrekin erlazionatuak dauden fitxategietan oinarritutako azpiegitura batean bihurtzen du. Funtsean, Wikipedia artikuluei zenbaki bat esleitzen die identifikatzaile bezala erabiliko duena. Ondoren, identifikatzaile hauen bitartez CSV (comma-separated values) fitxategiak sortzen ditu artikuluen arteko erlazioekin. Lehenik, artikuluak antolatzeko erabiltzen duen egitura aztertuko da.

Wikipediako artikulu bakoitza "identifikatzailea, titulua, mota" hirukoteaz erreferentzia egiten dio. Mota aldagaiak 4 balio ditu non 1 artikulua den, 2 kategoria, 3 birbideratzea eta 4 desanbiguazio orria. Jarraian dagoen adibidean ikus daiteke "identifikatzaile, titulua, mota" lagin bat desanbiguazio orri, birbideratze eta artikulu batera erreferentzia egiten duten hiru

sarrerekin.

- 19709347,"La Gioconda",4
- 1924249,"La Gioconda (opera)",1
- 10101187,"Gioconda Salvadori",3

Aingura guztiak kudeatzeko, "aingura, helburu_identifikatzaile, frekuentzia" patroiaz baliatzen da. Honela aingura eta artikulu arteko lotura identifikadore bitartez burutzen du. Azpian ikus daiteke aingura ezberdinetatik desanbiguazio orrira edo artikulura loturak eta hauen frekuentziak. Adibidez ""La Gioconda",1924249,189"-rekin "La Gioconda" aingurarekin 1924249 identifikatzailea duen "La Gioconda (opera)" artikulura 189 aldiz erreferentzia egin dela esan nahi du. Hemen ikus daiteke, Wikipedia Miner sistemak, 3.2.3 atalean aipatu den propietate garrantzitsua nola kudeatzen duen. Gainera propietatea neurtzen duen frekuentzia gehitzen dio erlazioari.

- "La Gioconda",19709347,5
- "La Gioconda (disambiguation)",19709347,0
- "La Gioconda",1924249,189
- "La Gioconda (film)",1924249,0
- "La Gioconda (opera)",1924249,5

Birbideratze eta Desanbiguazio orrien kasuetan, "identifikatzaile, helburu_identifikatzaile" bezala kudeatzen ditu. Adibidez, 19709347 "La Gioconda" desanbiguazio artikulua, 1924249 "La Gioconda (opera)" artikulura bideratua dagoela adierazteko "19709347,1924249" errepresentazioa erabiltzen du. Birbideratzeak modu berdinean kudeatzen ditu.

Azpiegitura honekin, Wikipedia artikuluek elkarren artean dituzten loturak ebatziz informazio asko atera daiteke. Bide batez, helburuetan aipatu den sistema garatzeko, azpi egitura hau erabili da. Honetarako, aingura eta entitateen arteko erlazioak dituen hiztegi bat erabili da. Hiztegi hau izango da desanbiguazio metodoa garatzeko oinarri nagusia. Jarraian hiztegi hau eraikitzeko aurrera eraman diren pausuak azalduko dira.

3.5 Standford-UBC sistema, hiztegia eraikitzen

Europeanako elementuak Wikipedia artikuluekin aberasteko sistema bat garatzeko, lehen pausua hiztegi bat sortzea izan da. Hiztegia eraikitzeko [10] artikuluan aipatzen diren oinarriak erabili dira. Ainguretan oinarrituz, artikulu batekiko duen erlazioaren probabilitateaz sorturiko hiztegia sortzen da. Aingura eta artikuluaren arteko erlazioa, aingura hori, artikulu batera erreferentzia moduan agertu den kopuruaren kontaketaz puntuatzen da. Informazio guzti hau, Wikipedia Miner-ek erauzi duen azpiegituran aurkitzen da lehen aipatu den bezala.

Hiztegiaren egitura, lerroko, aingura eta entitate zerrenda dira hutsuneaz banandua. Entitate zerrenda, aingura-testu berdinetik erreferentzia duten entitate ezberdinez osatzen da. Entitate zerrendako entitate bakoitza entitate kontaketa parea da ":" bereizia. Entitate eta aingura-izenak azpimarraz bereiziak doaz hitz bat baino gehiago duten kasuetan. 3.1 taulan ikus daiteke hiztegiaren egitura lagin batean.

aingura	entitatea:kontaketa zerrenda
la_gioconda	**La_Gioconda_(opera):203** Mona_Lisa:7 Lisa_del_Giocondo:7 ...
mona_lisa	**Mona_Lisa:364** Mona_Lisa_(film):81 Mona_Lisa_(Nat_King_Cole_song):52 ...
the_mona_lisa	Mona_Lisa:6
mona_lisa_albums	Mona_Lisa_albums:1

Taula 3.1: Hiztegiaren lagina eta zuzeneko desanbiguazio adibideak. Bertan ikus daiteke aingura-testu berdinarentzat erreferentzia duten artikuluak. "la_gioconda" aingura 203 aldiz erabili da "La_Gioconda_(opera)" entitateari erreferentzia egiteko.

3.1 taulan ikus daitekeen hiztegiaren laginean, zuzenean desanbiguatu daiteke izen bat. Adibidez testu batean agertu den "La Gioconda" izena hiztegian aingura moduan bilatuz "la_gioconda", kontaketa altuena duen "La_Gioconda_(opera)" entitatea bueltatuz egin daiteke ataza hau. Edo "mona_lisa" izenarentzat adibidez, 364 alditan erreferentzia duen artelana bueltatuz. Hiztegia eraikitzean, gerta daiteke, aingura batek birbideratze edo desanbiguazio orrialde batera erreferentzia egitea. Hau gertatzen den

kasuan, bideratze hauek ebatzi behar dira hiztegia entitate kanonikoez soilik osatua egon dadin.

3.5.1 Entitate kanonikoa



Irudia 3.7: Birbideratze eta desanbiguazio orrien ebazpenean jarraitu beharreko pausoen adibideak ikus daitezke irudian. Goiko atalean birbideratze (R) batetik, birbideratze batera lotura eta azken honetatik artikulu kanonikora (C) loturak agertzen dira. Azpiko atalean berriz, desanbiguazio (D) orri bateko aukeretan, bi artikulu kanonikoetara eta birbideratze batera erreferentzia ikus daiteke.

Hiztegiko entitate zerrendetan birbideratze eta desanbiguazio orriak ager ez daitezen, hauek ebatzi behar dira entitate kanonikoa bilatuz. Entitate kanonikoa, 3.7 irudian ikusten diren zuhaitzetako hostoetako entitateak dira. Ebazpen hau burutzeko Wikipedia Miner-ek erauzitako fitxategiak erabili dira birbideratze edo desanbiguazio orrietatik, artikulu kanonikoetara loturak dituztenak hain zuzen. Hasiera batean birbideratze orriaren helburu artikulua jartzea nahikoa zela pentsatu zen, baina baliteke birbideratze orri batek beste batera erreferentzia egitea eta azken honek artikulu kanonikora. Edo are eta okerrago, birbideratze bat desanbiguazio orri batera. 3.7 irudian ikus daiteke entitate edo artikulu kanonikoaren bilaketarako posibleak izan daitezkeen bi egoera.

Artikuluen kanonikoen ebazpenerako, artikuluen arteko dependentzia zuhaitzak sortu dira birbideratze eta desanbiguazio orrietan oinarrituak.

3.6 Europeana eta Paths

Orain arte, Europeanako elementuei buruz eta hauei esleitu beharreko Wikipedia artikuluei buruz solastu da. Jarraian, Europeana-ri buruzko datu batzuk azalduko dira eta Wikipedia artikuluez aberasteko arrazoiaren bultzatzailea izan den PATHS proiektua azalduko da.

Europeana[9] Europear batasuneko kide diren 27 estatuen instituzio kulturalen kontribuzio digitalen liburutegia da. Atzipen askea eskaintzen du bere eduki guztietara eta 2008ko azaroaren 20 jaio zen. Bere edukien artean, liburuak, pelikulak, arte-lanak, egunkariak, multimedia fitxategiak, mapak eta beste hainbat elementu aurki daitezke bilduma ezberdinetan banatuak. Honen helburua, web orriaren bitartez, erabiltzaileei proiektu honetako parte diren herrialdeen kultura aberastasuna eskura jartzea da.

Proiektuaren helburuetan azaldu den urre-patroia (ausaz aukeraturiko Europeana elementuen lagin etiketatua) osatzen duten elementuak, Scran eta Culture Grid izeneko bildumetatik ausaz hartu dira. Scran bilduma 310.800 elementuz osatua dago, fitxategi hauek, museo, galeria eta beste hainbat iturri ezberdinetatik gehituak dira. Culture Grid bilduma berriz, Erresuma batuko 40 bilduma ezberdinetako 547.000 elementuz osatua dago. Europeanako elementuak Europeana Semantic Elements Specifications (ESE) bidez kudeatzen dira, hauek hurrengo azpi-atalean azalduko dira.

3.6.1 Europeana Semantic Elements Specifications (ESE)

```
<record>
  <dc:identifier>http://www.picturethepast.org.uk/frontend.php?keywords=
                 Ref_No_increment;EQUALS;NCCW001197</dc:identifier>
  <europeana:uri>http://www.europeana.eu/resolve/record/09405/
                 C052AA1727D9C258801CF676473953A0861A47C0</europeana:uri>
  <dc:title>The Major Oak</dc:title>
  <dc:source>Picture the Past OAI feed</dc:source>
  <dc:contributor>North East Midland Photographic Record</dc:contributor>
  <dc:description>The largest Oak tree in England, perhaps in the world,
                  this famous tree has withstood lightning, the drying-out
                  of its roots and even a recent fire. The hollow tree has
                  a circumference of 32 feet and the spread of its branches
                  makes a ring 260 feet round.</dc:description>
  <dcterms:isPartOf>Picture the Past</dcterms:isPartOf>
  <dc:language>EN-GB</dc:language>
  <dc:publisher>North East Midland Photographic Record</dc:publisher>
  <dc:subject>Robin_Hood</dc:subject>
  <dc:type>Image</dc:type>
  <dc:format>JPEG/IMAGE</dc:format>
  <europeana:provider>CultureGrid</europeana:provider>
  <europeana:hasObject>true</europeana:hasObject>
  <europeana:country>uk</europeana:country>
  <europeana:type>IMAGE</europeana:type>
  <europeana:language>en</europeana:language>
</record>
```

Irudia 3.8: Europeanako ESE fitxategi baten adibidea. "The Mayor Oak" elementuaren titulu, deskribapen eta irudiari buruzko informazioarekin.

[9] http://www.europeana.eu/portal/

ESE fitxategiak XML formatuan daude eta 3.8 irudian ikus daitekeen itxura dute. Fitxategietan <record> etiketen bidez bildumetako elementuak banatzen dira. Etiketa garrantzitsuenak aztertuz, <dc:identifier> etiketak elementu bakoitzaren identifikatzailea dauka, Europeana osoan bakarra izango da eta elementua gainontzeko elementuetatik bereiziko du. <dc:title> eta <dc:description> etiketetan berriz, titulua eta deskribapenak daude.

3.6.2 PATHS (Personalized Access To cultural Heritage Spaces)

PATHS[10] proiektua, Europeana bezalako ondare kulturaleko bilduma erraldoietan, bilduma digitalen arteko bisitaldi gidatu eta pertsonalizatuak eskaintzeko aplikazio bat garatzean datza. Informazio kantitate handietan erabiltzaile arruntak galtzeko duen erraztasunaren aurrean soluzio bezala agertu zen Europeana-Paths lotura hau. Paths edo bisitaldi gidatu hauen bitartez, erabiltzaileei ondare kultural guztia aztertzeko bide berriak eskaintzea da helburua.

Bisitaldi baten ibilbidean erlazionatutako elementuak eta beste erabiltzaileek egindako bisitaldiak ere gomendatuko dira. Ibilbideak, modu ezberdinetan antola daitezke: gertakari historiko baten inguruan (gerra hotza), artelan eta egile baten inguruan (Picasso eta bere artelanak), toki baten inguruan (Venezia) edo pertsona baten inguruan (Muhammad Ali) adibidez.

Ibilbide honetako elementu bakoitza Wikipedia artikuluekin aberastea proposatu zen eta horretarako Wikipedia Miner-ek elementu bakoitzarentzat proposatutako artikuluak, elementuari txertatu zitzaizkion ESE fitxategian. Horretarako, Wikipedia Miner-i elementu bakoitzak *dc:title*, *dc:description*, *dc:subject* eremuan duten testua eman eta irteeran bueltatutako artikuluak gehitu ziren. ESE eta Wikipedia Miner-ek esleitutako artikuluen txertaketatik ESEPaths formatu berria (ikus 3.9) sortu zen.

ESEPaths fitxategi berrietako Wikipedia artikuluak Wikipedia Miner-ek esleitutako pisuaz datoz (confidence). Gainera zein eremutatik (field) eta eremu honetako zein hitz-multzotik (hasiera eta bukaera markekin definituak) esleitu diren gehitzen du. 3.9 irudian ikus daiteke hirugarren dagoen "http://en.wikipedia.org/wiki/Major Oak" artikulua, tituluko 4-13 karaktereen artetik esleitu dela, "Major Oak" azpimultzotik hain zuzen.

[10] `http://group.europeana.eu/web/guest/details-paths/`

```
<record>
 <dc:identifier>http://www.picturethepast.org.uk/frontend.php?keywords=
               Ref_No_increment;EQUALS;NCCW001197</dc:identifier>
 <europeana:uri>http://www.europeana.eu/resolve/record/09405/
           C052AA1727D9C258801CF676473953A0861A47C0</europeana:uri>
 <dc:title>The Major Oak</dc:title>
 <dc:source>Picture the Past OAI feed</dc:source>
 <dc:contributor>North East Midland Photographic Record</dc:contributor>
 <dc:description>The largest Oak tree in England, perhaps in the world,
                 this famous tree has withstood lightning, the drying-out
                 of its roots and even a recent fire. The hollow tree has
                 a circumference of 32 feet and the spread of its branches
                 makes a ring 260 feet round.</dc:description>
 <dcterms:isPartOf>Picture the Past</dcterms:isPartOf>
 <dc:language>EN-GB</dc:language>
 <dc:publisher>North East Midland Photographic Record</dc:publisher>
 <dc:subject>Robin_Hood</dc:subject>
 <dc:type>Image</dc:type>
 <dc:format>JPEG/IMAGE</dc:format>
 <europeana:object>http://www.peoplesnetwork.gov.uk/dpp/resource/2210977/
                   stream/thumbnail_image_jpeg</europeana:object>
 <europeana:provider>CultureGrid</europeana:provider>
 <europeana:hasObject>true</europeana:hasObject>
 <europeana:country>uk</europeana:country>
 <europeana:type>IMAGE</europeana:type>
 <europeana:language>en</europeana:language>
 <paths:background_link source="wikipedia" start_offset="0" end_offset="9"
  field="dc:title" field_no="0" confidence="0.017"
  method="wikipedia-miner-1.2.0">http://en.wikipedia.org/wiki/TheMajor(Hellsing)
 </paths:background_link>
 <paths:background_link source="wikipedia" start_offset="4" end_offset="9"
  field="dc:title" field_no="0" confidence="0.017"
  method="wikipedia-miner-1.2.0">http://en.wikipedia.org/wiki/Major
 </paths:background_link>
 <paths:background_link source="wikipedia" start_offset="4" end_offset="13"
  field="dc:title" field_no="0" confidence="0.130"
  method="wikipedia-miner-1.2.0">http://en.wikipedia.org/wiki/Major Oak
 </paths:background_link>
 <paths:background_link source="wikipedia" start_offset="10" end_offset="13"
  field="dc:title" field_no="0" confidence="0.231"
  method="wikipedia-miner-1.2.0">http://en.wikipedia.org/wiki/Oak
 </paths:background_link>
 <paths:background_link source="wikipedia" start_offset="10" end_offset="13"
  field="dc:title" field_no="0" confidence="0.017"
  method="wikipedia-miner-1.2.0">http://en.wikipedia.org/wiki/Quercus robur
 </paths:background_link>
</record>
```

Irudia 3.9: ESEPaths fitxategi baten adibidea. "The Mayor Oak" elementuaren titulu, deskribapen eta irudiari buruzko informazioaz gain berrikuntza moduan background linkak agertzen dira. Bertan Wikipedia Miner-ek titulutik proposaturiko artikuluak agertzen dira.

3.7 Aurrekarien azterketaren laburpena

Aurrekarien atala amaitzeko, helburuak berrikusiko ditugu eta hauek burutzeko aurrekariek eskaintzen dutena laburbilduko da.

Lehen helburua, Europeanako elementuak, sistema automatiko bidez, Wikipedia artikuluekin aberastea posible den ikertzea eta ebaluatzea da. Hau egiteko Europeanako elementuak Wikipedia Miner-ekin aberastu ditugu.

Bigarren helburua, Europeanako elementuak Wikipedia artikuluekin aberasteko sistema bat garatzea eta ebaluatzea da. Honetarako, sistemaren oinarria izango den hiztegia prest dago.

Oraindik sistema hauek ebaluatzeko urre-patroia sortu eta ebaluatu behar da eta garatuko den sistemaren oinarriak besterik ez dira azaldu. Hurrengo atalean, urre-patroia nola sortu eta ebaluatu den azalduko da. Ondoren sistemaren garapena azalduko da eta azkenik bi sistemak (Wikipedia Miner eta garatu dena) urre-patroiaren aurka ebaluatuko dira.

4 Kapitulua

Esperimentuaren diseinua

Europeanako elementuak, sistema automatiko bidez, Wikipedia artikuluekin aberastea posible den ikertzeko egingo den esperimentuaren diseinua azalduko da atal honetan. Baina lehenik esperimentuak burutzeko behar diren datuak prestatu behar dira.

Esperimentu guztiak Europeanako 400 elementuren inguruan egingo dira. Lehenik ausaz aukeratutako dira elementuak eta eskuz etiketatuko dira dagokion Wikipedia artikuluarekin. Eskuz eginiko etiketatua elkarrengandik independenteak diren 3 pertsonako bi taldek burutu dituzte. Alde batetik Donostiako EHU-ko taldeak etiketatutakoa dago eta bestetik Sheffield-eko taldeak eginikoa. Beraz, etiketatu bikoitza dago, elementu bakoitzarentzat bi artikulu. Donostian egindako etiketatua urre-patroi moduan erabili da eta Sheffield-ekoa berriz, urre-patroiaren ebaluaziorako. Etiketatuan, elementuaren instantzia definitzen duen artikulua aurkitu nahi izan da eta ez erlazionatutako artikulua. Artikuluak, ondare kulturaleko elementuak deskribatzen duena deskribatu behar du.

Bestalde, Europeanako elementuak Wikipedia artikuluekin aberasteko sistemaren garatzeko oinarriak ezarri dira aurreko atalean. Atal honetan sistema hau nola garatu den azalduko da.

Esperimentua egiteko behar den guztia azaldu ondoren, kapitulu honen amaieran esperimentuaren pausoak azalduko dira.

4.1 Eskuzko etiketatua: Urre-patroiaren sorkuntza eta ebaluazioa

Ausaz Europeanako 400 elementu hartuz, esperimentu guztietarako elementuak finkatu ziren. Elementu hauek bi bilduma ezberdinetatik hartu ziren Scran bildumatik erdia, 200 elementu eta Culture Grid bildumatik beste er-

dia. Guztiak, aipaturiko bi bilduma hauen gainetik dagoen bilduma handiago bateko kide dira. Horrela eskuzko etiketatua erraztuko dute, elkarren artean erlazionatuak baitaude. 4.1 taulan ikus daitezke ausazko elementu ezberdinen mota eta kopurua. Bertan ikusten den moduan gehienak argazkiak diren arren, txanponak eta margolanak ere ageri dira.

Mota	kopurua
Argazkiak	276
Txanponak eta tresnak	57
Liburuak edo liburuxkak	24
Besteak	21
Margolanak	14
Ikus entzunezkoak	8
Guztira	400

Taula 4.1: Ausaz harturiko Europeanako 400 elementuen motak

4.1.1 Eskuz eginiko etiketatuaren metodologia

Etiketatua burutzeko elementu bakoitzari eskuz artikulua esleitu beharra zegoen. Horretarako, Europeanako ESE fitxategietako informazio osoa erabili dute bi taldeetako etiketatzaileek, titulutik hasita, argazki eta deskribapen testuetaraino. Etiketatzaileen lana elementu hauei Ingelesezko Wikipediako artikulua lotzea da eta artikulurik esleitzeko ez dagoenean NIL bueltatzea. Ataza honen emaitza, 4.2 taulan ikusten den itxura duten bi fitxategi dira, talde bakoitzeko bat. Hauek elementuaren identifikatzailea <dc:identifier> eta NIL edo artikulua dute.

<dc:identifier>	NIL edo Artikulua
000-000-701-088-C	http://en.wikipedia.org/wiki/Reo_Speed-Wagon
000-299-995-321-C	NIL
000-000-577-216-C	http://en.wikipedia.org/wiki/Heart_scarab
000-000-559-364-C	NIL

Taula 4.2: Eskuz eginiko etiketatuaren lagina, irudian ikus daiteke lau elementuetako birentzat artikulua esleitu dela eta beste bien kasuan NIL. NIL-ak esleitzeko artikulurik ez dagoela islatzen du.

Etiketatua burutzeko irizpide nagusia hau da: "Wikipedia artikuluak eta elementuak objektu bera deskribatu beharra dute. Argazkien kasuan, artikulua subjektuari buruzkoa izan behar du , hau da, argazkiko pertsonaia edo

lekua". Arau hau jarraituz, Europeana elementu bati esleitu zaion Wikipedia artikulua ikus daiteke 4.1 irudian.



Irudia 4.1: Europeanako "The Major Oak"elementua ezkerrean eta honi dagokion Wikipedia artikulua eskuinean

Atalaren hasieran aipatu bezala, Donostian egindako etiketatua urre-patroi moduan erabili da eta Sheffield-ekoa berriz, eskuz eginiko etiketatzaileen arteko adostasuna ebaluatzeko. Etiketatzaileek, nahi gabe birbideratze edo desanbiguazio orrialde bat esleitu duten kasurako 3.5.1 ataleko metodo berdinarekin artikulu kanonikoak ebaztu dira.

4.1.2 Urre-patroiaren etiketatuaren emaitzak

Eskuz eginiko etiketatuaren ondoren, urre-patroiko 400 elementuetatik 89-k dute artikulua esleitua %22-a, beraz NIL kasuak asko dira %78 hain zuzen (ikus 4.3 taula). Kontuan hartuta etiketatua burutzeko irizpidea zorrotza dela etiketatzaileak gai izan dira elementu sorta batentzat artikulua esleitzeko. Honek esan nahi du ondare kulturaleko elementuak Wikipediako artikuluekin aberastea posible dela %22-ak informazio gehigarria lortu dezakeelako.

Bildumak	Scran	Culture Grid	Guztira
Elementu kopurua	200	200	400
NIL	140	171	311
Artikulua dute	60	29	89

Taula 4.3: Urre-patroiaren elementuen kontaketak. Aipagarria da 400 elementuetatik 311 NIL direla.

Jarraian urre-patroia ebaluatuko da Sheffield-eko taldearen etiketatuaren aurka, modu honetan, etiketatzaileen arteko adostasuna neurtuko da. Bide batez etiketatzeko irizpidea egokia den jakiteko.

4.1.3 Etiketatzaileen arteko adostasuna

Atal honetan, etiketatzaile taldeen artean dagoen adostasuna aztertuko da, hau da, EHU-ko taldearen urre-patroia eta Sheffield-eko etiketatuaren arteko adostasuna. 4.4 taulan ikus daitekeen moduan bi taldeen artean %92.5 eta %80.0-ko adostasun portzentaje altuak lortu dira, Culture Grid eta Scran bildumetan hurrenez hurren. Balio hauek etiketatzaileek artikulu berdina edo biok NIL bezala etiketatu diren kasuen kontaketak dira. Beraz esan daiteke artikulua esleitu edo NIL esleitu erabakitzean adostasuna altua dela.

NIL kasuak asko direla kontuan hartuta, etiketatzaileek artikulua esleitu duten 58 kasuen artean (22 Culture Grid-en eta 36 Scran-en) %90.9 eta %94.4-ko adostasun aipagarria lortu da.

	Scran	**Culture Grid**
Adostasuna guztira	80.0%	92.5%
Adostasuna: Biok NIL	126	165
Desadostasuna: Batek NIL	38	13
Adostasuna: Artikulu berdina	34	20
Desadostasuna: Artikulu desberdina	2	2

Taula 4.4: Etiketatzaileen arteko adostasunaren emaitzak: Lehen lerroak 400 itemen arteko adostasun portzentajea erakusten du. Bigarren eta hirugarren lerroek NIL kontaketak. Azken bi lerroek, artikuluak aukeratu diren item-en kontaketak erakusten dituzte.

Adostasun maila altua izan den arren, bi taldeek artikulu desberdinak aukeratu dituzten 4 (2 Scran-en eta 2 Culture Grid-en) kasu daude. Jarrian horietako bat aztertuko da. Elementu hau 'REO' izeneko kamioi baten argazkiari buruzkoa da eta 4.2 irudian ikus daiteke etiketatzaileen desadostasuna. EHU-ko etiketatzaileek Reo Speed-Wagon[1] izeneko kamioi modeloa bezala etiketatu dute. Sheffield-eko taldeak berriz, REO Motor Car Company[2] bezala, kotxe hau komertzializatu zuten enpresako artikuluarekin. Esan beharra dago bi artikuluak onargarriak direla etiketatzeko irizpidearekiko eta elkarren artean oso antzekoak. Beraz, etiketatzeko irizpidea zorrotza izan arren, ikusi da interpretazio ezberdinak eduki ditzakeela.

[1] `http://en.wikipedia.org/wiki/ReoSpeed-Wagon`
[2] `http://en.wikipedia.org/wiki/REO_Motor_Car_Company`



Irudia 4.2: Etiketatzaile taldeen arteko desadostasun adibidea: "REO" elementuarentzat etiketatzaile talde bakoitzak artikulu ezberdina aukeratu duen arren elkarren artean oso antzerakoak dira.

4.1.4 Eskuz eginiko etiketatuaren analisia

Etiketatzeko irizpidea hau dela gogoratuz: "Wikipedia artikuluak eta elementuak objektu bera deskribatu beharra dute. Argazkien kasuan, artikulua subjektuari buruzkoa izan behar du , hau da, argazkiko pertsonaia edo lekua". Eskuz eginiko etiketatuaren analisia eginez, elementuaren arabera etiketatzeko irizpideak interpretazio ezberdinak izan ditzakeela ikusi da. Beraz zorroztasun maila bat gehitzea beharrezkoa dela pentsatu da ondorengo irizpideak gehituz:

- Elementua txanpon bat denean, Wikipedia artikuluak txanpona bera deskribatu behar du eta bestela NIL etiketatu. Adibidez txanpon honentzat "Denarius, of Lucius Marcius Censorinus"[3] deskribatzen duen artikulua[4] existitzen da eta etiketatu egokia litzateke. Irizpide hau elementu mota guztietara zabaltzen da, hauek kontzeptu baten instantzia moduan kontsideratuz.

- Toki edo pertsona baten argazkia denean, hauek anonimoak diren ka-

[3] http://www.europeana.eu/portal/record/00401/2FCF4C116A23D5F179CEE72DC9CAEE2A02721F79.html

[4] http://en.wikipedia.org/wiki/Denarius_of_L._Censorinus

suan ez dira etiketatuak izango. Adibidez "futbolaria", "eliza", "hiria" edo "oinezkoak" bezalako kasuei dagozkien artikuluak ez dira onartuko.

- Elementuaren tituluan pertsona eta toki baten agerpena baldin badago, lehentasuna pertsonaren artikuluak izan beharko du. Hala ere etiketatu bikoiztua egitea planteatu daiteke.

Irizpide berri hauek etorkizunean etiketatzeko pentsatuak dauden arren, urre-patroian eta Sheffield-eko taldearen etiketatuan aplikatu dira. Izan ere lehen etiketatua burutu ondoren etiketatzaileek elementu batzuentzat etiketa zalantzan jarri baitzuten. Beraz zalantza hauek argitzeko definitu ziren irizpide berriak. Atal honekin amaituz, urre-patroia prest dago sistema automatikoek itzuliko dituzten emaitzak ebaluatzeko. Hurrengo atalean, garatuko den sistemaren inplementazioa azalduko da eta aurrerago Wikipedia Miner-ekin batera ebaluatuko da.

5 Kapitulua

Europeanako elementuak Wikipedia artikuluekin aberasteko sistemaren garapena

Aurrekarietako 3.5 atalean, aingura-entitate hiztegia nola eraiki den azaldu da. Honekin jarraituz sistema automatikoek 400 elementuen ESE fitxategietako <dc:title> eremuetako testua sarrera bezala jasoko dutela aipatu da. Garatuko den sistemak, titulu honetatik, hiztegian agertzen diren aingurak aurkitu behar ditu. Ondoren sistemaren emaitza hau izango da: aingura hauei hiztegian lotuak dauden hautagaien zerrendako entitateak. Lehenengo pausua beraz tituluan hiztegiko aingurak bilatzea izango da.

5.1 Elementuen tituluetan hiztegiko aingurak identifikatzen

Ataza honetan, esperimentuetarako erabili diren 400 item-en tituluetan hiztegiko aingurak aurkitzea da helburua. Horretarako perl-en programatutako script bat erabili da. Honek, sarrera bezala jasotzen duen testu batean aingurak bilatzen ditu tituluko azpi-kate guztietan. Demagun, "Leonardo da Vinci margolari famatuaren Mona Lisa artelana" titulua duen elementua aztertu nahi dugula. Titulu honetan aurkituko lituzkeen aingurak, "Leonardo da Vinci","Leonardo", "Mona Lisa", "Lisa" eta "Mona" dira, guzti hauek aingura bat baitute hiztegian. Ondoren aingura bakoitzari hiztegian lotuak dauden entitateen zerrendak elementu honen entitate posible bezala itzuliko lituzke sistemak.

Beraz, azken pausu honekin, Europeanako elementuak Wikipedia artikuluekin aberasteko sistema bat osatu da. Baina oraindik, Wikipedia Miner-

ekin lehiatzeko esleitzen dituen entitateak pisatu behar dira.

5.2 Hiztegiak bueltatzen dituen entitateak pisatzeko metodologia

Elementu bakoitzarentzat, sistemak itzultzen dituen artikuluak, pisatu nahi dira. Balio hauek esleitzeko [6] artikuluan azaltzen den algoritmoan oinarrituak egongo dira pisuak. Lehenik algoritmo hau azalduko da eta ondoren sistemarentzat erabili dena.

5.2.1 Xianpei Han eta Lee Sun-en algoritmoa

Entitate-izenenen desanbiguaziorako algoritmo honek, c testu batean agertzen den s izen aipamenetik, hautagaiak izan daitezkeen $e1, e2, e3...$ entitateak sortzen ditu. Hautagaiak sortzeko hiztegi bat erabiltzen du. Hautagaiak izan daitezkeen entitate bakoitzeko, hiru probabilitateren biderkaduraz sailkapen bat egiten du. Sailkapen hau egiteko erabiltzen diren probabilitateen balioak gure sistemak entitateei pisu bat esleitzeko erabiliko dira.

- Lehen biderkagaiak, e entitatea zein ospetsua den neurtzen du. Entitate batzuk beste batzuk baino ospetsuagoak dira ezagutza basean. Adibidez Wikipedian "Karlos Argiñano", "Juanito Oiarzabal" baino ospetsuagoa da. Beraz adibide honetan "Karlos Argiñanok" probabilitate altuagoa lortuko du. Hau $P(e)$ probabilitate banaketa bezala izendatuko da.

- Bigarren biderkagaiak, s izenak e entitatea izendatzeko duen probabilitatea neurtzen du. Hau da, entitate hori aipatzeko erabili den izena askotan erabilia izan baldin bada probabilitate handiagoa izango du atal honetan. Hau $P(s|e)$ probabilitate banaketa bezala izendatuko da.

- Hirugarren biderkagaiak c testu batean e entitateak azaltzeko duen probabilitatea neurtzen du. Sukaldaritzari buruz hizketan dabilen testu batean "Karlos Argiñanok"probabilitate handiagoa lortuko du beste edozeinetan baino. Hau $P(c|e)$ probabilitate banaketa bezala izendatuko da.

Lehen esan bezala hiru probabilitateen biderketa bidez $P(s, c, e) = P(e)P(s|e)P(c|e)$ hautagaiak diren entitateak sailkatuko dira. Probabilitate altuena lortzen duena izango da s izenarekin c testuan agertu den aipamenari dagokion e

entitatea. Beraz entitate irabazlea aurreko formularen maximoa lortzen duena izango da.

$$e = \underset{e}{\operatorname{argmax}}\, P(s, c, e) = \underset{e}{\operatorname{argmax}}\, P(e)P(s|e)P(c|e)$$

5.2.2 Pisuak esleitzeko sistema propioa

Entitate bakoitzari pisu bat esleitzeko oinarria aurreko ataleko algoritmoaren probabilitateetan dago. Baina aldaketa txiki batzuekin. Elementu bakoitzarentzat dugun informazio guztia honen titulua da, ez dugu testuingururik. Beraz, pisatzeko ditugun baliabideak, hiztegiko aingura bezala identifikatu den tituluko s azpi-katea eta hiztegitik s-rentzat sortu diren e entitate zerrenda dira.

Beraz pisatzeko algoritmoaren formula $P(s, e) = P(e)P(s|e)$ laburtua izango da.

$P(e)$ kalkulatzeko formula hau erabiliko da:

$$P(e) = \frac{Count(e)}{|M|}$$

$Count(e)$ bidez, e entitateak ezagutza basera erreferentzia duen aldien kontaketa da, $|M|$ kontaketa guztien batura. Balio guzti hauek hiztegitik lortu daitezke. $Count(e)$ kalkulatzeko, entitate hau edozein ainguratik agertu den kontaketen batura da. $|M|$ berriz entitate guztiek erreferentzia duten aldien batura.

$P(s|e)$ kalkulatzeko formula hau erabiliko da:

$$P(s|e) = \frac{Count(e, s)}{\sum_{s} Count(e, s)}$$

$Count(e, s)$ bidez, s izenarekin e entitateari erreferentzia egin den aldien kontaketa da. $\sum_s Count(e, s)$, e entitatea s izen ezberdinekin guztira agertu den aldien kontaketa da, beraz $Count(e)$-ren berdina. Beraz $P(s|e)$-ren formula hau litzateke aldaketak eginez:

$$P(s|e) = \frac{Count(e, s)}{Count(e)}$$

Azkenik $P(s, e) = P(e)P(s|e)$ kalkulatzeko aurreko bi formulak biderkatzea besterik ez da gelditzen:

$$P(s,e) = P(e)P(s|e) = \frac{Count(e)}{|M|}\frac{Count(e,s)}{Count(e)}$$

$Count(e)$ sinplifikatuz formularen azken itxura:

$$P(s,e) = P(e)P(s|e) = \frac{Count(e,s)}{|M|}$$

$P(s,e)$ izango da, hiztegiko aingura bezala identifikatu den elementuaren tituluko s azpi-katetik eratorri den e entitatearen pisua. Formula hau ezagunagoa da, "egiantza handieneko estimazio" izenaz.

5.2.3 Pisaketaren adibidea

Adibidez, demagun elementu baten tituluan "la Gioconda" s azpi-katea aurkitu dela eta hau hiztegiko aingura da. Hauek dira hiztegiak proposatzen dituen e entitateak: "Mona Lisa" artelana, "La Gioconda, opera" eta "Lisa del Giocondo" artelaneko modeloa. Jarraian entitate bakoitzaren $P(e)$ pisaketak:

1. Mona Lisa $P(e) = 4.11 * 10^{-06}$
2. La Gioconda, opera $P(e) = 2.05 * 10^{-06}$
3. Lisa del Giocondo $P(e) = 2.97 * 10^{-07}$

Pisaketa irizpide hau bakarrik kontuan izanda, Mona Lisa edo La Gioconda arte lanari dagokion entitateak du pisu handiena. Esan beharra dago, sailkapen honetan lehenengo entitateak bigarrenaren probabilitatea bikoizten duela. Hau normala da, arte lanak operak baino askoz gehiagotan du erreferentzia Wikipedian. Ondoren $P(s|e)$ soilik erabiliz pisaketen balioak:

1. La Gioconda, opera $P(s|e) = 2.15 * 10^{-07}$
2. Lisa del Giocondo $P(s|e) = 5.11 * 10^{-08}$
3. Mona Lisa $P(s|e) = 3.69 * 10^{-09}$

Bertan ikus daiteke "la Gioconda" izenarekin ezagunagoak direla opera eta modeloa artelana baino. Esan beharra dago, arte lana "Mona Lisa" izenarekin ezagunagoa dela eta hau da emaitza hauen zergatia. Azkenik bi banaketak konbinatuz, hauek dira pisuen azken balioak:

1. La Gioconda, opera $P(s,e) = P(e)P(s|e) = 4.41 * 10^{-13}$

2. Mona Lisa $P(s, e) = P(e)P(s|e) = 1.52 * 10^{-14}$
3. Lisa del Giocondo $P(s, e) = P(e)P(s|e) = 1.52 * 10^{-14}$

Orain ikus daiteke, pisuak esleitzerako orduan, Mona Lisa arte lana besteak baino entitate ospetsuagoa den arren, e entitatea eratorri den s azpikatearen garrantzia.

5.3 Esperimentuaren egitura

Puntu honetan, esperimentua burutzeko elementu guztiak prest daude. Alde batetik urre-patroia dago eta 400 elementuetako bakoitzarentzat esleitu beharko litzatekeen artikulua du, artikulurik esleitu ez den kasuan NIL. Bi sistema automatikoek, 400 elementuei, entitate zerrendak esleitu dizkiete eta artikulurik esleitu ezin izan duten kasuetan NIL bueltatu dute.

Ebaluazioa bi zatitan banatuko da. Lehenik sistemak artikulu egokia zerrendako hautagaien artean sortzeko gai den ebaluatuko da. Hau da, urre-patroian dagoen artikulua zerrendetan dagoen aztertuko da. Bigarrenik heuristiko bidez sistemek itzuli dituzten zerrendako artikulu bakarra aukeratuko da. Ondoren, aukeratu den artikulu hau urre-patroiko berdina den aztertuko da. Honetarako garrantzi handia izango dute sistemek artikuluei esleitu dizkieten pisuek.

6 Kapitulua

Sistema automatikoen ebaluazioa eta analisia

Atal honetan sistema automatikoek Wikipedia artikuluak esleitzeko duten gaitasuna ebaluatuko da. Bi sistemak, Wikipedia Miner eta xede berdinerako garatu den sistema dira. Hemendik aurrera Europeanako elementuak Wikipedia artikuluekin aberasteko garatu den sistema "EWA" bezala izenpetuko da eta Wikipedia Miner "WM" bezala.

Sistemek esleitu dituzten artikulu eta NIL kopuruak aztertuz (ikus 6.1 taula), WM-ek 400 elementuetatik 381 elementuri artikuluak esleitu dizkio, EWA-k aldiz 399 elementuri. Ikus daitekeenez sistemek elementuen tituluetatik hautagaiak sortzeko erraztasuna dute. Baina hau ez da abantaila bat, urre-patroian 89 artikuluk bakarrik dute artikulua esleitua.

Sistema	**WM**	**EWA**	**Urre-patroia**
Elementu kopurua	400	400	400
NIL	19	1	311
Artikulua dute	381	399	89

Taula 6.1: WM, EWA eta Urre-patroiaren NIL edo artikulu kontaketak. Aipagarria da, sistemek artikulua esleitzeko duten erraztasuna.

6.1 taulako balioak, elementuei artikulu bat gutxienez esleitu dioten zenbaketak dira. Sistemek elementu bakoitzari artikulu bat baino gehiago esleitu diote eta kontaketak guztira eginda, WM-ek 1732 artikulu esleitu ditu eta EWA-k 88502. Honen arrazoia sinplea da, EWA-ren kasuan, elementuen tituluetatik atera daitezkeen hiztegiko aingurak asko dira eta aingura hauek, hiztegian entitate asko dituzte lotuak.

Ebaluazioa bi zatitan banatu da. Lehenik sistemek sortzen dituzten hautagaien artean hautagai egokia sortzeko duten gaitasuna aztertuko da. On-

doren heuristiko bidez zerrendako artikulu bakarra aukeratuz, hau egokia den ebaluatuko da. Emaitzak bitan banatu ditugu, alde batetik Scran-eko 200 elementuak eta bestetik Culture Grid-ekoak.

Emaitzetan, zehaztasuna (Urre-patroian dagoen emaitza lortzen duten kasuak, zati elementu guztiak), doitasuna (urre-patroiko artikulu bera lortu duten elementuen kontaketa, zati sistemak artikulua esleitu dion kasuen kontaketa), estaldura (urre-patroiko artikulu bera lortu duten elementuen kontaketa, zati urre-patroian artikulua esleituta duten elementuen kontaketa) eta f1 (doitasun eta estalduraren arteko batez besteko harmonikoa) erabiliko dira.

6.1 Sistema automatikoek hautagai egokia sortzeko duten gaitasunaren ebaluazioa

Azterketa honetan, algoritmo perfektu baten bitartez zerrendako artikulu egokia aukeratzeko gai izango bagina bezala ebaluatu nahi izan dira sistema automatikoak. Horretarako, Wikipedia artikulu egokia hautagaien artean dagoen ebaluatzeko bi orakulu diseinatu dira:

- Lehenengo Orakuluak, elementu bakoitzarentzat sistemak itzuli duen artikulu zerrendatik egokia aukeratzen du (dagoen kasuan), bestela ez du artikulurik bueltatzen.
- Bigarren Orakuluak, urre-patroian elementuak artikulurik esleitua ez badauka (NIL da) NIL itzultzen du, sistemak artikulua esleitu dionean ere. Bestela lehenengo orakulua aplikatzen du: Artikulu sortatik egokia aukeratu eta hau itzultzen du, posiblea den kasuan.

